

NOLA AURKEZTU ZUZENKETAK EDO ERREKLAMAZIOAK ONARTUEN EDO BAZTERTUEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDARI Maisu-maistren kidegorako oposizio-lehiaketa

Zuzenketa edo erreklamazioen bat aurkeztu behar baduzu abenduaren 2ko 324/2021 Ebazpeneko deialdian onartu eta baztertu direnen behin-behineko zerrenda dela eta, urrats hauei jarraitu beharko diezu: Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariaren 43/2022 Ebazpena otsailaren 24an argitaratu zen. **Zuzenketak edo erreklamazioak aurkezteko epea 2022ko otsailaren 25etik martxoaren 10era bitartekoa da**, biak barne.

Ezer baino lehen, egiaztatu zure eskaeraren egoera eta zuzenketaren bat eskatzen zaizun, deialdiaren [web-fitxa](#)ko "Onarpena" atalean (eranskinak). Gero, **presta ezazu** zuzentzeko **aurkeztu nahi duzun dokumentazioa SOILIK**; ez dituzu agiri guztiak berriz aurkeztu behar, eskatu zaizkizunak besterik ez. Zerbait alegatu edo komentatu nahi baduzu, horretarako prestatutako testu libreko koadro batean egin ahalko duzu. Zalantzarik baduzu, telefonoz deitu edo mezu elektronikoko bat idatz dezakezu.

Hona hemen zeintzuk diren deialdi honetatik **baztertze**ko arrazoiak, eta nola zuzendu:

• **NANA** edo agiri baliokidea:

- ✘ Ez du nortasun-agiririk aurkeztu (NANA, pasaporte, etab.)
- ✘ NAN iraungia
- ✘ Nortasun-agiri osatugabea edo irakurtezina
- ✓ **NAN** edo agiri baliokide (pasaporte edo gidabaimen) **indardunaren aurrealdea eta atzealdea artxibo bakarrean** aurkeztu behar dituzu, ongi irakurtzeko moduan.

• **Titulua**, prozesuan parte hartzeko eskatzen dena:

- ✘ Ez du aurkeztu eskatzen den titulua edo hura eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria
- ✘ Ez du aurkeztu tituluaren aurrealdea
- ✘ Ez du aurkeztu tituluaren atzealdea
- ✘ Eskatzen den eta aurkeztu den titulua irakurtezina da
- ✘ "Titulua" atalean aurkeztutako dokumentua hondatuta dago
- ✘ Aurkeztutako homologazio-ziurtagiriak ez du egiaztatzen deialdirako eskatzen den gutxieneko maila
- ✘ Ez du aurkeztu homologatutako titulua
- ✘ Ez du aurkeztu eskatzen den tituluaren homologazioa
- ✘ Eskatzen den titulua gaztelaniara itzuli gabe aurkeztu du
- ✘ Eskatzen den tituluaren egiaztagiria iraungia dago
- ✓ Prozesuan parte hartzeko eskatzen den **titulu indardunaren kopia osoa aurkeztu behar duzu, ongi irakurtzeko moduan**, euskaraz edo gaztelaniaz, edo titulu hori emateko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria. Atzerriko tituluen kasuan, homologazioa ere aurkeztu behar da, eta, hala behar bada, zinpeko itzulpena ere bai.

- **EGA edo baliokidea**, euskarazko espezialitateak hautatuz gero:
 - ✘ Ez du aurkeztu EGA tituluaren edo baliokide baten kopia osoa, irakurtzeko moduan eskaneatuta
 - ✘ EGAREN edo baliokidearen egiaztatzea irakurtezina da
 - ✘ Euskara tituluaren ziurtagiriak jada ez du baliorik
 - ✓ **Erantsi beharko duzu** EGA tituluaren edo baliokide baten kopia, irakurtzeko moduan.
- **Ordainketa-gutunak**, eskatutako espezialitate bakoitzerako:
 - ✘ Ez du ordainketa-gutunik aurkeztu
 - ✘ Aurkeztutako ordainketa-gutuna ez dago ordainduta
 - ✘ Ordainketa-gutunean ez dago erakunde kudeatzailearen zigilurik edo sinadurarik
 - ✘ Ez da ageri espezialitaterako azterketa eskubideak ordaindu direnik
 - ✓ Aukeraturiko espezialitate eta hizkuntza bakoitzeko ordainketa-gutun bat **aurkeztu behar duzu**, behar bezala ordaindua eta justifikatua, kode inprimatuaren edo bankuko frogagiriaren bidez. Kontzeptuan espezialitatea eta hizkuntza agertu behar dira.
 - ✓ Ordainketa-gutun bat ordaindu behar baduzu, helbide honetan egin dezakezu:
<https://hacienda.navarra.es/ingresosnotributarios/frm704.aspx?cn=04OPOSMAES>
- Azterketa eskubideak ordaintzetik **salbuetsirik** egotea:
 - ✘ Ez du egiaztatzen lan eskatzaile gisa inskribatuta dagoenik
 - ✘ Ez du egiaztatzen lan eskatzaile gisa hilabete bat eman duenik
 - ✘ Enplegu-eskariaren ziurtagiria ez dago sinaturik
 - ✓ Enplegu Zerbitzuaren **ziurtagiri ofizial bat aurkeztu behar duzu**, behar bezala sinatua eta zigilatua. Ziurtagiri horretan argi eta garbi agertu behar da zein egunetan hasi zen enplegu-eskaera, eta deialdian adierazitako epean inskribaturik zeundela.
- **Desgaitasuna**:
 - ✘ Ez du desgaitasunaren ziurtagiririk aurkeztu
 - ✓ **Ziurtagiri ofiziala aurkeztu behar duzu**, eta hartan agertu behar dira desgaitasunaren aitortpena eta gradua ehunekotan.
- **Beste batzuk**:
 - ✘ Espezialitatea ez dago deialdian, edo ez da bat ere aukeratu: inskripzioa ez du berariazko formularioaren bidez egin, eta ez du espezialitaterik aukeratu.
 - ✓ **Testu koadroan**, parte hartzeko espezialitatea eta hizkuntza idatzi behar dituzu.
 - ✘ Espezialitate berriak eskuratzeko txandarako aurkeztu du eskaera. Hezkuntza Departamentuaren mendeko funtzionarioa ez denez, txanda irekira aldatu dugu ofizioz.
 - ✓ Zehapenik ez duzula adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar duzu.
 - ✘ Behin betiko funtzionarioa denez, espezialitate berriak eskuratzeko txandara aurkeztu behar du, eta ez txanda irekira. Eskatutako espezialitatera eta hizkuntzara aldatu dugu ofizioz.
 - ✓ Zehapenik ez duzula adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar duzu.

Gaitutako epearen barruan egin ditzakezu erreklamazioak.

Dokumentazioa prest duzunean, [klik egin](#) fitxa honetan berean dagoen “**Tramitatu**” botoian:

TRAMITACIÓN

Subsanar ^

Plazo:

Instrucciones:

De manera telemática a través del botón “Tramitar”.

Se puede tramitar con las siguientes credenciales:

- Con certificado digital o DNI electrónico
- Con Cl@ve

Se pueden adjuntar archivos de hasta 20MB.

TRAMITAR

[Identifika zaitetz](#) eskura dituzun metodoetako bat aukeratuz:



navarra.es

Castellano Euskera Francés English
(Utilice el buscador) introducezca palabra/s

NAVARRA TRÁMITES TEMAS GOBIERNO ACTUALIDAD

Identificación por Certificado de Usuario

Registro General Electrónico

Certificado digital o DNI electrónico

Utilice un certificado digital válido o el DNI electrónico para acceder.

Consulte las [autoridades de certificación admitidas](#) para las tramitaciones on-line.

Continuar

Otras credenciales

cl@ve

Hori egin ondoren, zuzenketak egiteko formularioan sartuko zara:



Irakasleen oposaketan betebeharrak zuzentzeko/erreklamatzeko eskaera

Eskabidea bete

Jomuga (*)

HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA/SERVICIO DE SELECCION Y PROVISION DE PERSONAL DOCENTE

Eskabidearen laburpena: (*):

Irakasleen oposaketan betebeharrak zuzentzeko/erreklamatzeko eskaera

(*) Nahitaezko datuak

Hurrengoa

Jarraitu beharreko urratsak

1 - Eskabidea bete

2 - Datu pertsonalak

3 - Berariazko datuak

4 - Sinatu eta igorri

5 - Egiaztagiria

Bete itzazu **nahitaezko** datuak, hau da, izartxo bat (*) dutenak. "Erantzun telematikoa" laukia **markatu**, baldin eta gaitutako helbide elektronikoa baduzu.

Irakasleen oposaketan betebeharrak zuzentzeko/erreklamatzeko eskaera

Datu pertsonalak

Esan ezazu eskabidea zure ordez edo beste baten ordez aurkezten duzun: (*) Nahitaezko datuak.

Neure izenean

Honako honen ordezkarari

Marka ezazu erantzun telematikoa jaso nahi baduzu. Beharrezkoa da **Helbide Elektronikoko Gaitua** izatea eta **Nafarroako Gobernuaren prozeduretarako** harpidetua egotea. Oroitu pertsona eta erakunde batzuk behartuak daudela jakinarazpenak telematikoki jasotzera.

Eskabidearen aurkezlea:

NAN/IFZ/IFK/eIDAS (*):

Izena (*):

Lehen deitura (*):

Bigarren deitura:

Helbide elektronikoa:

Telefonoa (*):

Kalea (*):

Zenbakia:

Eskailera/Solairua:

Herrialdea (*):

Probintzia:

Herria (*):

Posta Kodea (*):

Aurrekoa

Hurrengoa

Jarraitu beharreko urratsak

1 - Eskabidea bete

2 - Datu pertsonalak

3 - Berariazko datuak

4 - Sinatu eta igorri

5 - Egiaztagiria

"Hurrengoa" sakatuta, beste pantaila batera sartuko zara. Bertan, modu pertsonalizatuan adieraziko da **zer elementu dituzun zuzentzeko**:



Adierazpena onartu behar duzu

Zure nortasun agiria atxiki behar duzu

Gutxienez ere ordainketa-gutun bat erantsi behar duzu, edo tasen salbuespenaren ziurtagiria

Unibertsitateko titulu bat aurkeztu behar duzu gutxienez

Euskaraz badakizula ziurtatzen duten agiriak ekarri behar dituzu

Aurrekoa

Hurrengoa

Lehenik, **nahitaez** onartu behar duzu **adierazpen pertsonala**. Ondotik, zuzendu gabe daukazun atalak soilik agertuko dira.

Erants ezazu **NANa** harekin erroreren bat egon bada

Gutziz gogoratzekoa da ezen, "**Hautatu artxiboak**" botoian sakatu eta zure sistemako artxibo bat hautatutakoan, beharrezkoa dela "**Erantsi**" botoia **sakatzea** (ez bada hala egiten ez da benetan erantsiko):

Berariazko datuak

Maisu-maistren oposizioa 2022

Honako hau adierazten dut: Lanpostuaren eginkizunetan aritzeko gaitasun fisikoa eta psikikoa badudala, ez negoela eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitu edo gabetua, ezta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizita ere (espainiako nazionalitatea ez duten pertsonen kasuan, nire estatuan funtzio publikora sartzea eragozten didan diziplina zehapenik edo zigor-kondenak ez izatea) eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariaren abenduaren 2ko 324/2021 ebazpenean ezarritako beharkizun eta baldintza guztiak betetzen ditudala, eta badudala deialdian eskatzen den titulazioa, zeinen kopia dakart.

Datu pertsonal osagarriak

Nortasun agiria

Seleccionar archivo

Ningún archivo seleccionado

Erantsi

Ezabatu

Jarraitu beharreko urratsak

1 - Eskabidea bete

2 - Datu pertsonalak

3 - Berariazko datuak

4 - Sinatu eta igorri

5 - Egiatagiria

- Erants ezazu **desgaitasuna**ren ziurtagiria, oker egin baduzu, edo hala egitea beharrezkoa bada txanda aldatzeagatik (txanda irekitik erreserba txandara, adibidez)
- Erants ezazu ordainketa-gutuna, zuzendu beharreko ataletako bat baldin bada:

Tasen ordainketa

Tasetatik salbuesteko eskatzen dut
Tasak ordaintzetik salbuetsita daude:

- % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak (desgaitasuna egiaztatzen duen ziurtagiria edo irizpena erantsi beharko dute)
- Deialdia argitaratu baino hilabete lehenagoko epean gutxienez langabe gisa izena emanda daudenek (dagokion enplegu-bulegoak emandako ziurtagiria erantsi beharko dute).

Ordainketa-gutuna Ningún archivo seleccionado

- Ordainketa-gutun bat ordaindu behar baduzu, helbide honetan egin dezakezu:
<https://hacienda.navarra.es/ingresosnotributarios/frm704.aspx?cn=04OPOSMAES>

- Gero, gehitu prozesu honetarako eskatzen den **titulazioa**.
- Gehitu ezazu **euskararen ezagutza** egiaztatzen duen titulazioa, euskarazko espezialitateren bat hautatu baduzu.

Betekizun espezifikoak

Eskatzen den titulua Ningún archivo seleccionado

Atzerriko hizkuntza baten ezagutza egiaztatzen duen dokumentua Ningún archivo seleccionado



- Azkenik, **testu libreko koadro** bat daukazu, zuzentzeko zure aukeren artean ez dagoen edozein erreklamazio egin nahi baduzu.

Zuzenketa edo erreklamazioen bat egin nahi izanez gero, testu-koadro honetan egin dezakezu:

Behin bukatutik, "Jarraitu" sakatzen baduzu **baliozkotze prozesua** abiatuko da. Zerbait zuzendu gabe gelditu bada gorriz idatzitako testu bat agertuko da, eta dena zuzen bete baduzu **laburpena agertuko** zaizu.

Pantaila honetan agertuko zaizkizu egindako zuzenketa guztiak eta erantsitako fitxategi guztiak. Horretaz gainera, datu pertsonalen gaineko tratamenduari buruzko informazioa emanen digu, eta lauki baten bidez behartuko gaitu **adieraztera** ezen **irakurri eta onartzen** ditugula erantsitako agiriak egiazkoak direla dioten baldintzak.

Deialdia: Maisu-maistren oposizioa 2022

Honako hau adierazten dut: Lanpostuaren eginkizunetan aritzeko gaitasun fisikoa eta psikikoa badudala, ez negoela eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitu edo gabetua, ezta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizia ere (espainiako nazionalitatea ez duten pertsonen kasuan, nire estatuan funtzio publikora sartzea eragozten didan diziplina zehapenik edo zigor-kondenak ez izatea) eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariaren abenduaren 2ko 324/2021 ebazpenean ezarritako beharkizun eta baldintza guztiak betetzen ditudala, eta badudala deialdian eskatzen den titulazioa, zeinen kopia dakart.

Aurreko eskabidea deuseztatzen du: 2022/356

Ordainketa-gutun :

MuestraCartaPago.jpg

Nortasun agiria:

MuestraDNI.jpg

Eskatzen den titulua

MuestraTitulo.jpg

Ziurtagiria euskaraz

MuestraEGA.jpg



"Sinatu eta bidali" sakatu ondoren, sistemak frogagiri bat erakutsiko dizu. **Frogagiri** hori PDF batean gorde edo inprima dezakezu (prozesua egin duzula eta behar bezala bukatu duzula egiaztatzen du).

Sinatu eta igorri

Nork aurkeztua

NAN/IFZ/IFK (*):

Izena:

Lehen deitura:

Bigarren deitura:

Helbide elektronikoa:

Erantzun telematikoa jasotzeko eskaera: Erantzun telematikoa eskatu da eta egun, interesatuak, ez dauka DEH edo ez dago sinatuta Nafarroako Gobernuaren jakinarazpen elektronikoaren prozedurara; hortaz, ez du erantzun telematikorik jasoko baldintza horiek betetzen ez dituen arte.

Jasotze-agiriaren zenbakia

Jomuga: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA/SERVICIO DE SELECCIÓN Y PROVISIÓN DE PERSONAL DOCENTE

Eskabidearen laburpena: Irakasleen oposaketan betebeharrak zuzentzeko/errekamatzeko eskaera

Berariazko datuak:

Deialdia: Maisu-maistren oposizioa 2022

Honako hau adierazten dut: Lanpostuaren eginkizunetan aritzeko gaitasun fisikoa eta psikikoa badudala, ez negoela eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitu edo gabetua, ezta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizia ere (espainiako nazionalitatea ez duten pertsonen kasuan, nire estatuan funtzio publikora sartzea eragozten didan diziiplina zehapenik edo zigor-kondenak ez izatea) eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariaren abenduaren 2ko 324/2021 ebazpenean ezarritako beharkizun eta baldintza guztiak betetzen ditudala, eta badudala deialdian eskatzen den titulazioa, zeinen kopia dakart.

Jarraitu beharreko urratsak

- 1 - Eskabidea bete
- 2 - Datu pertsonalak
- 3 - Berariazko datuak
- 4 - Sinatu eta igorri**
- 5 - Egiaztagiria

Hori egin ondoren, prozesua bukatu duzu.

Une horretatik aurrera **aztertuko** da zuzenketak egiteko aurkeztu duzun dokumentazioa, eta behar dena egingen da. Segidan, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda **jarriko da jendaurrean** eta hartan zure egoera egiaztatzeko aukera izanen duzu.

GARRANTZITSUA: prozesuan zehar **eskabidea aurkeztea galarazten duen erroreren bat** agertzen bada, egin ezazu errorearen pantaila-argazki bat eta igor ezazu mezu elektronikoa bat afera honetarako gaitutako euskarri teknikora eta hartan adierazi zer dakizun erroreaz, pantaila-argazkia, zer ordutan aurkeztu den eta NANA. Zure eskaera aztertuko da eta erantzun bat jasoko duzu.

Helbide elektronikoa: soportec@navarra.es telefonoa: 948 013 576

Jendea hartzeko ordutegia: astelehenetik ostegunera, 08:30etik 17:30era. Ostiraletan: 08:30etik 15:00etara.